

DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETARAKO GAITASUN IKASTAROA 2017

Diru laguntza lerro
bakoitzeko oinarrien
laburpena
GIZA ESKUBIDEAK

Antolatzaileak :



Bideratzailea: **emun**
PARTE-HARTZE ZERBITZUAK

Donostia, urtarrilak 10, 2017

OHARRA:

Dokumentu honetan Diru laguntza lerroaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira.

Diru laguntza prozesuaren barne, baliodun erreferentzia bakarra Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdia da

Baliodun Oinarri eta Inprimakiak
www.donostia.eus/partaidetza Udal
Webgunean eskuratu
daitezke.

BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDE DIHARDUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEEI ZUZENDURIKO DIRU LAGUNTZAK

NORK ESKA DEZAKE DIRU LAGUNTZA?

Giza Eskubideen eta Bakearen alde lan egiten duten Donostiako irabazi asmorik gabeko erakundeek (beraien Estatutuen arabera) egoitza, ordezkaritza eta jardun eremua Donostian izanez gero.

ZE MOTATAKO PROIEKTUAK JASO DEZAKE DIRU LAGUNTZA?

- Donostian bertan edo Donostiarentzat interesgarri gerta daitezkeen beste esparru batzuetan bakearen, elkarbizitzaren, oroimen historikoa berreskuratzearen eta giza eskubideen aldeko hedapen, eraikitze, sustatze eta defentsa proiektuak eta jarduerak gauzatu beharko ditu.
- Donostiarrak kontzientziatu eta sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzeko borondatean; aniztasunaren-ganako begirunearen alde egin, ezberdintasunaren balioa aitortu eta giza eskubideak eta askatasunak errespetatzea sustatzen duten ekintzen bidez, eskubideak eta askatasunak aitortzea eta aplikatzea segurtatu ez ezik, jarrera intoleranteak, sexistak, homo-les-transfobikoak, arrazistak, elkartasunik gabekoak eta antidemokratikoak gainditzen lagunduko dutenak.
- Aitortu gabeko oroimen historikoa edo nahikoa agerian ez dagoena, berreskuratzearen aldeko proiektuak ere sustatuko dira.

DIRU LAGUNTZA OINARRIETAKO HAINBAT EZAUGARRI

- Elkarre bakoitzak PROIEKTU 1 aurkeztuko du.
- Dirulaguntza gehienez gastuen %80koa izango da.
- Diru laguntza jasotzen duen entitateak nahitaez finantziazioaren parte bat bere gain hartuko du: proiektuaren %20 gutxienez.
- Entitate eskatzaileak langileak kontratatzea: proiektua gauzatzeko beharrezkoak direla justifikatuz gero.
- Gastu administratiboak BAI: aurrekontuaren %10raino.
- Diruz lagundutako jarduerarekin ateratako dirua, diruz lagundutako proiektuan erabili beharko da.
- Ordaintzeko modua: %70 behin betiko ebazpenarekin batera emango da eta %30 diru laguntzaren justifikazioaren ondoren.

DIRU LAGUNTZA OINARRIETAKO IRIZPIDEAK

Entitate eskatzaileari dagokionez baloratzen dena :

0 eta 25 puntu bitartean

Entitateak proiektua arrakastaz bideratzeko gaitasuna:

- Proiektua garatu beharreko eremuan esperientzia duela eta harremanak dituela tokiko, estatuko edo nazioarteko beste organo edo erakunde batzuekin, baita Udaletxearekin ere.
- Entitatearen ibilbidea, egonkortasuna, aspaldiko jarduera eta erro donostiarrak.
- Entitateak lehenago Donostiako Udalaren diru laguntzaz edo lankidetzaz garatutako proiektuak.

JARDUERAN EDO EKINTZAN BALORATZEN DENA

Proiektuaren bideragarritasuna: 0 eta 35 puntu bitartean

- Proiektuaren bidez jorratu nahi dituen beharrei antzematea.
- Proiektuak bestelako erakundeen finantzabideak eta baliabide pribatuak ere izatea.
- Proiektua iraunkorra izateko borondatea.
- Proiektuaren edo ekintzaren jakitun egoteko eta emaitzak ebaluatzeko sistema bat egotea.

JARDUERAN EDO EKINTZAN BALORATZEN DENA

Proiektuaren Gizarte Helburuak: 0 eta 40 puntu bitartean

- Proiektuaren edo jardueraren gizarte egokitasuna edo interesa.
- Donostiarrak jarduera garatzen inplikaturik egotea.
- Proiektuak gizarte balioak eta genero ikuspegia jasotzea.
- Egin behar den proiektua edo jarduera originala izatea.
- Proiektuak edo ekintzak antolatzea Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen proiektuaren barruan.

Proiektu edo jarduera bat diruz laguntzeko, **gutxienez 37,5 puntu** eskuratu beharko ditu balioztatzeko atalean.

Diru laguntza lerroaren aurrekontua 50.300 euro

DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

Giza Eskubideen Sailera zuzenduriko eskaerek, Diru laguntzen Oinarri Orokorretako 5. artikuluan eskaturiko dokumentazioaz gain, honako hauek izan beharko dituzte:

- Elkarteak aurreko urtean egindako jardueren memoria (lehenago aurkeztu ez baldin bada).
- Entitatearen helburuen eta ibilbidearen deskribapen laburra.

DIRU LAGUNTZA JASO IZAN DUTEN PROIEKTUEN ADIBIDEAK

Proiektua “Hitz egin- hablar- falar - parlar. Activistas por la paz” (DEMAGUN)

PROIEKTUAK ZITUEN ELEMENTU ERREZTATZAILEAK UDALAK AZTERTU AHAL IZATEKO

- Deskribapen orokorra eta justifikazioa
- Helburu orokorrak eta zehatzak
- Mota ezberdineko ekintzen erlazioa: foro birtualak, unibertsitateen arteko topaketak, prestakuntza mintegia...
- Parte hartzaileen kopuru zabala: weborriaren bitartez eta ekintza bakoitzeko. Donostiarrak, euskaldunak, estatukoak eta atzerriarren parte hartzea
- Gizarte eragile ezberdinen parte hartzea
- Ibilbide luzeko proiektua eta jarraitzeko helburuarekin
- Ondorioak jaso eta guztia laburtzen duten dokumentuen sorrera
- Ebaluaketa sistema eta adierazleak: parte hartzaileen zenbakia ekintza bakoitzean, web orriko kontagailua, helbide elektronikoen zerrendak...